

ERANSKINA: ZAMUDIOKO TEKNOLOGIA PARKERA DOAN EUSKOTRENEKO TREN-BUS ZERBITZUAREN UDAKO ORDUTEGIA

Datorren astelehenetik, ekainaren 24tik aurrera, lanegunetako astelehenetik ostiralera eskaintzen den Zamudioko Teknologia Parkera doan Euskotreneko tren-bus zerbitzuaren ezaugarriak, ondorengo hauek izango dira:

1. Goizeko zerbitzua Zamudioko geltokitik Teknologia Parkerantz:

- Autobusaren lehen zerbitzua: 7:24an.
- Autobusaren azken zerbitzua: 9:24an.
- Teknologia Parkerantz doazen zirkulazioen eguneko kopurua: 7.
- Teknologia Parkera joateko irteera orduak, Bilbo jatorria duten trenak Zamudioko geltokira iritsi ondoren (Zazpi Kaleak): 7:24, 7:44 (kasu honetan, 105 biribilgunea Eraikineko eta 300 ITP Eraikina geralekutik ez dabil), 7:57, 8:24, 8:44 (105 biribilgunea Eraikina eta 300 ITP Eraikina geralekutik ez dabil), 8:57 eta 9:24an.

2. Autobusaren irteera orduak Teknologia Parketik Zamudioko geltokirantz:

- Lehen zerbitzua: 13:10ean.
- Azken zerbitzua: 14:40an.
- Egunero geltokirantz ibiltzen diren zirkulazio kopurua: 4.
- Autobusaren irteera orduak (parentesi artean Zamudioko geltokitik eta Bilboko Zazpi Kaleak geltokian helmuga duten irteera orduak adierazten dira): 13:10 (trenaren irteera: 13:35ean), 13:40 (trenaren irteera: 14:05ean), 14:10 (trenaren irteera: 14:35ean) eta 14:40 (trenaren irteera: 15:05ean).

Ibilbideak gaur egun noranzko bakoitzean 10 geraleku ditu. Geltokitik, autobusek ondorengo ibilbidea burutuko dute (7:44 eta 8:44ko geltokitik irteerak izan ezik hauek ez baitira gelditzen 105 Biribilgunea Eraikinean eta 300 ITP Eraikinean): Zamudioko geltokia, 809 Euskaltel Eraikina, 609 Geldos Eraikina, 700 Labein Eraikina, 801 Biogune Eraikina, 226 Eraikina, 201 Biribilgunea Eraikina, 101 Itsasontzia Eraikina, 105 Biribilgunea Eraikina eta 300 ITP Eraikina .

Kontrako noranzkoan, Parketik geltokira, autobusen ibilbidea ondorengo hau da: 809 Euskaltel Eraikina, 609 Geldos Eraikina, 700 Labein Eraikina, 801 Biogune Eraikina, 226 Eraikina, 201 Biribilgune Eraikina, 101 Itsasontzi Eraikina, 105 Biribilgune Eraikina, 300 ITP Eraikina eta Zamudioko geltokia.

